



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA

Dibulgazio Reels eta Argazki Zientifiko Txapelketen Araudia

- *Dibulgazio Hilabetea* -

2025-2026 Kurtsoa

Aurkibidea

1. Definizioa	2
2. Partaidetza	2
3. Hizkuntza	2
4. Formatua eta edukia	2
4.1. Formatua	2
4.1.1. Reels	2
4.1.2. Argazkiak	2
4.2. Edukia	2
5. Bidalketa	3
6. Epeak	3
7. Bozketa	3
7.1. Publikoaren bozketa	3
7.1.1. Reels	3
7.1.2. Argazkiak	4
7.2. Epaimahaiaren bozketa	4
8. Sariak	4
8.1. Epaimahaiaren saria	4
8.2. Publikoaren saria	4

1. Definizioa

Dibulgazio hila betea dela eta, Zimatek Zientzia eta Teknologia Fakultatearekin (FCT-ZTF) batera *Dibulgazio Reels eta Argazki Zientifiko* txapelketak aurkezten ditu.

Iniziatiba honen helburua urtero antolatzen den dibulgazio txapelketa sare sozialetara eramatea da, publiko orokorraren influentzia sustatuz eta teknologia berriak inplementatuz.

2. Partaidetza

Txapelketa hau UPV/EHU-ko ikasleei mugatuta dago eta edozein gradu eta fakultateko ikasleek parte har dezakete. Garrantzitsua da bideo eta argazkien gaiak zorrozki zientifikoak izatea (informazioaren zehaztasuna gailenduz). Parte hartzaileek reels zein argazki txapelketan parte har dezakete.

Txapelketa bietan parte-hartzea bi bideo eta bi argazkietara partaide bakoitzetik mugatuta egongo da. Antolatzailerik bidalitako bideoen eta argazkien onarpen eskubideak gordetzen dituzte.

3. Hizkuntza

Lehiaketerako onartzen diren hizkuntzak Euskera, Gaztelania eta Ingelesa dira. Ez dira ezberdintasunak egingo hizkuntzen artean, baina entregagaiak hizkuntz bakar batean egon beharko dira.

4. Formatua eta edukia

GARRANTZITSUA: Reels zein argazkiak zientziarekiko erlazioa izan behar dute.

4.1. Formatua

4.1.1. Reels

Bideoak 30 segundoko gutxieneko iraupena izango dute eta gehienezk minuto bat eta 30 segundokoak izango dira. Hauek 1080x1920 pixel izango dute eta 9:16 itxura erlazioa, edo berdina dena, instagram reels-ko formatu bertikala. Bidalketarekin, bideoaren titulua (derrigorrezkoa) eta nahi bada deskribapena igorriko da.

Bideoak gehienez 4 Gb-koak izango dira.

4.1.2. Argazkiak

Inprimatze kalitatea egokia izan dezan, argazkien formatua *.jpg* edo *.png* izan beharko du. Tamainaren alde, gutxienez 1,5 Mb izango ditu eta gehienez 5 Mb. Argazkiak **titulu eta argazki-oin** batekin batera etorri behar dira.

Bestalde, argazkiaren edukia txapelketaren gaiarekiko (zientzia) erlazioa ez badago argi, titulua eta deskribapena argitzeko erabili behar dira.

Horrez gain, kontutan izan, instagramera argazkia igotzerakoan alde batetik edo bestetik automatikoki mozten dela argazkia instagrameko dimentsioetara egokitzeko. Hori dela eta, hobe instagrameko dimentsioak kontutan hartzen badituzue hasieratik.

4.2. Edukia

Lan guztiak gai zientifiko bat jarraitu behar dute. Argazkiak, klip, audioak... edo beste motatako eduki multimedia erabiltzen badira, partaideak hauek copyright ez izatearen erantzule izango dira.

Horrez gain, beraien edukia haiena izan beharko da. Hau ez izatearen kasuan, partaideak erantzule legal bakarrak izango dira.

Bideoetan edo argazkietan beste pertsona (derrigorrez adin nagusikoak) edo animaliak agertzen badira, partaideak baimen guztien arduradun izango da eta ez izatearen erantzule legal bakarra izango da ere.

5. Bidalketa

Izen-ematea egiteko eta lana bidaltzeko [forms hau](#) bete behar da. **Argazki edo bideo bakoitzeko forms ezberdin BAT** bete behar da. Lana forms-ean sartzeko, argazki edo bideoaren **GOOGLE DRIVE-eko esteka** atxikitu behar da (esteka argazki edo bideoari zuzenean bidali behar gaitu, ez karpeta batera).

Arazo edo galderaren bat egotekotan, gure emailera kontaktatu ahal gaituzue: zimatek@gmail.com.

Argazkiak gure instagramera igoko dira post formatuan **martxoaren 30etik** aurrera edo jasotzen ditugun heinean (data horren ostean bidaltzen bada), bozketara irekitak egonda bere argitalpenetik. Lehiaketaren azken asteetan, behin bidalketa itxita egonda, **mahai urdinetan** ikusgai egongo dira argazki guztiak.

Bideoak gure instagramera igoko dira reels formatuan **martxoaren 30etik** aurrera edo jasotzen ditugun heinean (data horren ostean bidaltzen bada), bozketara irekitak egonda bere argitalpenetik.

6. Epeak

Lanak bidaltzeko epea **momentu honetatik aurrera** irekita egongo da eta **apirilak 17a** ostirala 23:59an itxiko da.

Lehen esan dugun legez, argazkiak geure instagramean argitaratuko dira post formatuan martxoaren 30etik aurrera. Horrez gain, storie-etara igoko ditugu (@zimatek_ztf).

Bideoetarako, bidalketa epea berdina izango da. Martxoaren 30tik aurrera eta epea bukatu arte, gure instagramean argitaratuko dira, bozketa publikoan sartuz bidaltzen diren momentuan.

7. Bozketa

Bozketa, sariak bezala, banatuta egongo da bozketa publikoa eta epaimahai anonimo baten (organizazioak aukeratua) artean.

7.1. Publikoaren bozketa

Publikoak apirilaren 24a arte (23:59) izango du bozkatzeko. Data horren ostean jasotako edozein boto (like) EZ DU KONTATUKO lehiaketarako.

7.1.1. Reels

Reels-ak forms-ean jaso heinean, eta martxoaren 30tik aurrera apirilaren 17ra arte, gure sare sozialeetan argitaratuko ditugu reels formatuan (ig:@zimatek_ztf), non ikusgai egongo dira publiko

orokorrarako. **Publikoaren bozketa instagrameko likes-en bidez izango da.** Gero eta *like* gehiago reels-ean, handiago izango da publikoaren bozketaren portzentaila. *Irregulartasuren bat nabarmentzen bada, organizazioak botoak atzera botatzeko edota lana deskalifikatzeko boterea dauka.*

7.1.2. Argazkiak

Argazkiak forms-ean jaso heinean, eta martxoaren 30tik aurrera apirilaren 17ra arte, gure sare sozialeetan argitaratuko ditugu post formatuan (ig:@zimatek_ztf), non ikusgai egongo dira publiko orokorrarako. **Publikoaren bozketa instagrameko likes-en bidez izango da.** Gero eta *like* gehiago post-ean, handiago izango da publikoaren bozketaren portzentaila. *Irregulartasuren bat nabarmentzen bada, organizazioak botoak atzera botatzeko edota lana deskalifikatzeko boterea dauka.*

7.2. Epaimahaiaren bozketa

Epaimahaia 8 pertsonen osatuta egongo da, zeinen nortasuna ezezaguna mantenduko da.

Hauk organizazioak erabakiko ditu eta haien artean zientzia zein sare sozialen eta dibulgazioaren adituak egongo dira, zeinek bidalitako lanen arlo ezperdinak epaituko dituzten, hala nola; estetika, sinbolismoa, gaiarekiko erlazioa (deskripzioak, izenburuak...), dinamismoa, originaltasuna edo zein ondo dagoen egokituta sare sozialetarako.

8. Sariak

Bi txapelketak bi sari eukiko dituzte bakoitza.

8.1. Epaimahaiaren saria

Irabazle bat erabakiko da epaimahairen partez, 8 pertsonen artean azken erabakiaren 80 % erabakiz eta bozketa publikoari 20 % emanaz.

Txapelketa bakoitzako irabazleak **100 €**rekin eta kamiseta batekin izango da saritua.

8.2. Publikoaren saria

Bestaldetik, publikoaren boto gehiena dauzkaten lanak (like gehien dauzkaten argazki eta bideoa) sari bat jasoko dute. Kasu bakoitzean sariak hurrengoak izango dira:

- *Argazki zientifikoko* publikoaren irabazlea: **Mini bideokamara digitala** eta kamiseta.
- *Dibulgazioko bideoen* publikoaren irabazlea: **Haririk gabeko bi mikrofono** eta kamiseta bat.